



SARDINA FRESKUE

Berriro Euskal Herrian!!!!



20⁰⁶/₂₆ eialabe
ekimen kulturalak



SARDINA FRESKUE kale ikuskizun parte-hartzailea da, parranda, jolasa eta dantza uztartzen dituena. Euskal doinuetatik abiatuta eta munduko erritmoekin nahastuta, publikoarekin batera hamaika koloretako sardina baten bila abiatzen den bidaia alaia proposatzen du.

Ikuskizunak mugimendua, musika eta irudimena baliatzen ditu festa kolektiboa sortzeko, non haur eta gazteek protagonismo zuzena duten. Sardina Freskue portuz portu dabilen ikur bizia da: hizkuntzak, erritmoak eta jende ezberdina elkartzen diren lekuetan agertzen da, aniztasuna aberastasun gisa ulertzen duen jaia piztuz.

Festa, aniztasuna eta elkarbizitza ospatzen ditugu kaleetan eta plazetan, herri osoa parte hartzera gonbidatuz.

Elkarrekin jolastu, dantzatu eta ospatuz, ikuskizunak mezu argi bat zabaltzen du: elkarrekin gehiago gara, eta festa partekatzen denean, herria kolorez betetzen da.




KONTRATAZIOA

eidabe

www.eidabe.com


info@eidabe.com

944 794 315



SANTURTZITIK BILBORAINO

Santurtzitik Bilboraino
Ibaizabal bazterrean
gona erdi altxaturik
hankak dantzari airean.
Korrika eta presaka,
beti ere algaraka,
kalerik kale ozenki:
Non dago?
Sardina freskue!
Sardin freskue
non ote da?
Hainbat kolore
galdu dira...!



SARDINA RRESKUE

Hitzak: Iñigo Astiz

Hauxe da festa ta erromeria
denak zarete ongi etorriak:
hega-luzeak, hega-laburrak,
handi, txiki ta txibiak.

Marea beheera, marea gora
gurekin beti da giro ona,
elkar maitatuz ta elkar zainduz
gure batela baita denona.

**Beraz orain goazen dantzatzera
eta batera ospatzera,
hau dela une ta lekue:
saaaaardina freeeeeskue.**

Gure eskifaia, a ze piura,
bale, kixkilla ta beluga.
Baina bakarra da gure oihua
"akabo da goibeldura!"


Bakoitzak bere hizkuntza dauka
ta guztiok gara euskara,
ze banan-banan etorri arren,
elkarrekin gehiago gara.

**Beraz orain goazen dantzatzera
ta batera ospatzera,
hau dela une ta lekue:
Saaaaardina freeeeeeeskue.**

Beti gabiltza porturik portu
lagunartea sortu ta sortu,
itsasoa ta bizi poza
ezin dira inoiz agortu.
Olatuekin orain bagoaz
beti itzultzeko asmoaz,
eta triste jarriz gero
oroitu garuko itsasoz!

**Beraz orain goazen dantzatzera
eta batera ospatzera,
hau dela une eta lekue:
Saaaaardina freeeeeeeskue.**

SARDINA FRESKUE



FIESTA

Hitzak: Iñigo Astiz

Gaur esnatu naiz
dantzatzeko gogoz,
lotsak behingoz
uxatzeko asmoz.
Gaur esnatu naiz
kantatzeko gogoz,
festa bat hasi dut
zu ere ba al zatoz?

Gure herriko astegunak
egun motelak, egun astunak,
bakoitza beti berera
ahaztuta laguntasuna.

Baina ei, emadazu eskua
elkarrekin irauliko dugu eguna.
Euskara dugu eskura
ta euskararen eskutik gara lagunak.

Festa!
Elkartasunean
festa!
Aniztasunean
festa!
Mila koloretako
festa!

Jantzi ditzagun betaurreko morexkak
horrela ederragoa da gure orkestra
zu ez bazaude gu-rik ez da,
eta gu gabe zer da festa?

Festa!
Elkartasunean
festa!
Aniztasunean
festa!
Mila koloretako
festa! (x2)

Gaur esnatu naiz
dantzatzeko gogoz,
lotsak behingoz
uxatzeko asmoz.
Gaur esnatu naiz
kantatzeko gogoz,
festa bat hasi dut
zu ere ba al zatoz?

